Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

175 zenbakia
2016 **abendua**

Prest!



BERBETAN: **DANEL ABANDO OLABARRI** BOXEOLARI AMATEURRA

ERREPORTAJEA: **DEUSTUKO KANALA (I)** **BARKUA:** **MARI CARMEN CABEZONEN MARGOAK**

TOKIKOM

169-170-171-172-173-174-

Prest! izan

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu edota norbaiti bidaltzea nahi baduzu, bete ondoko datuak eta igorri egizkiguzu.

Harpidetu urtean 25€

HONA:
Prest! aldizkaria
Ramon y Cajal 42
Deustua 48014
94 447 10 42

EDO HONA:
bilbokoaldizkariak@gmail.com



Harpidetza Txartela

Izen-abizenak:

Helbidea:

Telefonoa:

Babesleak

BIHOTZ ALAI FOLKLORE DANTZA TALDEA
bekoerri kultur elkartea
«MIKELDI» DANTZA TALDEA
DEUSTUKO JAI BATZORDEA
berbaizu euskaraelkartea
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística
Deustu ikastetxea Haur eta Lehen Hezkuntza
ZIRIKATZEN!
ABRAVN TALDEA DEVSTV
PARE HAUTSI DITZAGUN KATEAK
ELORRI BERTSO ESKOLA
deustuko gazte asamblea 1931 1940
ernai Deustua
erraldoien ondalan konpartsa
intxixu ikastola
Bizkaia foru aldundia diputación foral
Bilbao

175 zenbakia
2016ko abendua

aurkibidea

Maitane Muñoz eta Irati Antepara — **Iritzia** 4

Diego Grisaleña — **Gureak kanpoan** 5

e erreportajea 6
jai eredua aztergaia

Deustuko Kanala izena aspalditik ezaguna da. Beti ere, 1925ean Bilbok Deustu anexionatu zuen garaian, Bilboko Portuko Obra Batzordeak hasi zuen proiektuari lotuta.

Deustuko ikastola — **Eskolak** 10

Benita Unamunoren etxetxoa — **Behin batean** 12

Leire Saituaren kanta maitatuak — **Artikulua** 14

b berbetan 16
DANEL ABANDO OLABARRIrekin

Garaipen urtea izan da hau Danelentzat. Bizkaiko txapelketa, Euskadiko txapelketa eta Espainiako txapelketan brontzea eskuratu ditu boxeo amateurrean, oilar kategorian.

Obraren hastapenak 1951 — **Irudiak berbetan** 21

harkua bete herba 24

GAZTE LOKALA 25 urte hegoak astintzen

SAREKADA Klik eta klik

PINTXODROMOA Brest kafetegia

KULTUR TXOTX Izaskun Araluzea Itza eta Nahia Lopez de Mungia Agirre

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
DEUSTUA 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com
uriola.eus
@uriolaeus
facebook.com/uriolapuntueus

Zuzendaria: Lur Mallea
Erredakzioa: Jon Antolin, Olatz Arregi, Bea Medrano, Nerea Olaziregi, Ane Rotaetxe, Amaia Ruesgas, Borja Sarrionandia-Ibarra, Ane Zabala, Hektor Ortega, Jaione Ayestaran, Adriano de Mata, Nuria Arroyo, Amaia Mintegi, Itziar Fernandez
Kolaboratzaileak: Maitane Muñoz, Irati Antepara, Berta Alcalde Arrizabalaga, Izaskun Araluzea Itza, Elorri Bertso-Eskola, Patxi Gaztelumendi, Txema Luzuriaga, Deusto ikastetxea, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola
Argazkiak: Javi Garcia - Iñigo Azkona
Publizitatea: Ninbe Moreno
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Amaia Gil Basterretxea
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01
ISSN: 1577 - 9017

Maitane Muñoz Iturria
hezkitzailea eta mugimendu feministako kidea

Pobrezia kontzeptu zabala izan daiteke

Ez da ezta hilabete bat ere pasatu Fidel Castro hil zenetik. Castro komandantea, kubatar herriaren iraultza, jendarte eredu eta amets gorrien ikonoa izan da gutariko askorentzako. Bere heriotzaren harira 'Kuba' ohiko eztabaida gai bihurtu da tabernetan: "Kubako errealitatea ez da hain ideala…", "oso pobreak dira…", "idealetan oinarritutako eredua da, baina errealitatean hemen hobeto bizi gara…"

Elkarrizketa horiei bueltak ematen ibili naiz azkeneko asteetan. Zer da ondo bizitzea? Zer da Kuban daukatena eta Euskal Herrian ez daukaguna? Edota alderantziz, zer daukagu Euskal Herrian Kuban ez daukatena? Zer da pobre izatea?

Euskal Herria 'ongizate' gizartea delakoan bizi gara. Suposatzen da gure beharrizan guztiak aseak daudela gutariko askok enplegurik, etxebizitzarik ezta jatekorik ere izan ez arren. Gurea kapitalismoaren ongizatea da, kontsumismoan eta lehiakortasunean oinarritutako ongizatea; gure aberastasuna arroparen, mugikorren edota kotxe marken arabera neurtzen dugu. Hori al da bizitza osasungarria? Hori al da aberastasuna?

Kubako herriak, aldiz, oinarrizko beharrizanak bermatzeko apustua egin zuen aspaldi, luxuak eta kontsumismoa, artea eta hezkuntzagatik ordezkatuz. Castrok, Taniak, Camilok, Guevarak eta beste milaka kubatarrek, herritarrak eta haien behar nagusiak erdigunean kokatzeko iraultza abiatu zuten jendarte justuago bat eraikitzeko asmoz.

Txirotasuna neurtzeko era asko egon daitezke munduan, aukera izatekotan nik Kubako pobrezia aukeratuko nuke.

Irati Antepara
ikaslea eta bizizalea

Detaile txikiak handi

Deustu goitik behera kolorez jantzi duten milaka argiek Gabonak heldu direla gogorarazten digute urtean zehar despistatuta gaudenoi. Gabonetako zuhaitzak, familia eta lagunen arteko afariak edo berandura arteko parrandak dira denok Gabonengandik espero ditugun planak. Gainera, pertsona askok datorren urte berriari beteko omen dituzten milaka asmo adierazten dituzte, zentzurik gabeko dietak, kirola egiteko asmoak, osasuntsu jatekoak...

Baina tripa guztiz betetzeaz eta inoiz beteko ez diren asmo hauetaz gain, benetan den-denok detailetxo txiki baten zain gaude. Ume txikiak Olentzeroren zain gaua igarotzen duten bitartean, gu urte haietara itzultzeko gogoak irensten gaitu. Baina detaile txiki hauek urteekin handituz joan dira. Konturatu gabe Gabonetako opariak derrigorrak edo beharrezkoak bihurtu dira eta Gabonen benetako esanahia ahaztera eraman gaitu honek. Nik uste pixkanaka gertukoekin igarotako momentuek garrantzia handiagoa izan beharko luketela.

Gogoratu dezagun duela urte batzuk etxeetan opariek zeukaten garrantzia eskasa eta gaur egun aldiz, Gabonei zentzua ematen diena da zenbaitentzat. Egoera honetara heltzeak inguruan duguna ez baloratzera garamatza eta benetan kezkagarria dena, bizitzako gauza txikienari ere garrantzia kentzea.

Horregatik goza ditzagun bazkariak, afariak, etxekoen eta lagunen artean botatako barreak, eta bereziki, oparitu irribarreak, besarkadak eta musuak!

Diego Grisaleña

Jatorria: Deustu
Bizitokia: Londres
Lanbidea: arkitektoa

“Londrestarrak batez ere euskararekin asko harritzen dira”

Testua
Lur Mallea

Zergatik joan zara Londresera?
Sei hilabetetako praktikak Londreseko bulego batean egiteko etorri nintzen. Aukera sortu zitzaidan duela urtebete luze Arquia beka lehiaketara aurkeztu eta lortu nuenean *Deustuko etxetxo bat* proiektuari esker.

Zerk harritu zaitu gehien?
Lehenik eta behin distantziak eta denborak. Ia-ia edozein lekutara heltzeko 50 minutu behar ditut gutxienez. Adibidez, egunero lanera egiten dudan bidaia ia Bilbotik Donostiarako bidaiak beste irauten du. Distantziak hain handiak izateak inprobisatzeko askatasuna nahiko mugatzen du. Prezioak ere harrigarriak dira, garestiagoak. Pinta batek 5 libra balio ditu (7 euro), trena hartzeak 3,5 libra, logela bateko alokairuak 700 libra (800 euro), etab. Alde positibo asko ere baditu. Hiri honetan musika talde guztiek jotzen dute, nahi dituzun film, antzezlan edota erakusketak aurkitu ahal dituzu, mundu osoko elikagaiak dastatu ahal dituzu... eta gehien gustatzen zaidana kaleetan ikusten den ezberdintasuna eta aniztasuna dira.

Zelakoa da bertako bizimodua?
Deustuko bizimoduarekin ez du hainbeste desberdintasun. Hemengo bizi erritmoa askoz arinagoa da, hiri handi guztietan bezala.

Zelan bizi dira londrestarrak?
Londrestarrek lan asko egiten dute astegunetan eta asteburutan oso ondo pasatzen dute. Londrestar bat, peto-petoa aurkitzea nahiko zaila da. Gainera hemen jaio eta bizi direnek normalean hemendik alde egiteko gogo handi izaten dute. Uste dut Londresek, azkenean, asko nekatzen duela. Londres irla bat da irla baten barruan. Hemen Erresuma Batuko arazo ekonomiko edota politikoak ez dira nabaritzen. Lan piloa eta diru piloa dago hiri honetan. Hiri oso-oso garestia denez, hemen aurrera egiteko, ordu asko eman behar dira lanean, eta beti ez dira ondo ordaintzen.

Zer diote *Brexit*-a dela eta londrestarrek?
Nahiko lasaitu dira. Sorpresa oso handia izan zen Brexitarena, gutxienez nik ezagutzen ditudan lagunentzat. Londresen bozkatu zutenetik, %60 baino gehiago Europan geratzearen aldekoak ziren. Baina Londres ez da Erresuma Batua. Bertako hiritarrek, adibidez, Pakistango jatorria duen alkate musulman bat hautatu dute hiria zuzentzeko, irla honetako beste zenbait lekutan arrazismoa eta islamofobia gorantz ari den bitartean.

Zenbat euskaldun eta espainiar gazte aurkitu dituzu lanean?
Euskaldun eta espainiar pilo bat ari dira Londresen lanean, baina piloa, piloa. Espainiar arkitekto gehien lanean ari den munduko hiria da hau, Bartzelonan eta Madrilen baino askoz gehiago. Zergatik? Batez ere hemen lan duina aurkitu ahal delako, nahiz eta ingelesekin konparatuta gutxiago irabazten dugun. Lan merkatua bai Euskal Herrian bai Espainian oso-oso prekarioa da gazteentzako, eta hemen eskaintzen diren baldintzak askoz hobeak dira. Hori bai, nire asmoa da ahal dudan guztia hemen ikastea eta gero Bilbora itzultzea.

Zer diote londrestarrek euskalduna zarela diozunean?
Jendeak batez ere museoa, Athletic eta hiriak, Bilbo eta Donostia ezagutzen ditu. Batzuk gastronomia, folklore, hizkuntza edota bertako politika eta gatazka ere bai. Eta beste talde nahiko handi bat Euskal Herrian oporretan egona da, edota lagun edo ezagun euskaldunen bat du. Baina batez ere hizkuntzarekin asko harritzen dira. Pentsatzen dute euskara katalana bezalakoa dela, eta euskara entzuten dutenean flipatuta geratzen dira. Momentuan ohartzen dira euskara ez dela espainola edo frantsesa. Nik aprobetxatzen dut esateko euskara estralurtarrek piramideekin batera ekarri zutela duela bi mila urte baino gehiago.



DEUSTUKO KANALA EDO ITSASADARRAREN DESBIDERAKETA

Testua
Txema Luzuriaga
Erredakzioan itzulia
Argazkiak
Txema Luzuriagaren bilduma

Deustuko Kanala izena aspalditik ezaguna da. Betiere, 1925ean Bilbok Deustu anexionatu zuen garaian, anexioaren babespean, Bilboko Portuko Obra Batzordeak hasi zuen proiektuari lotuta.

2016an eta datozen urteetan Deustuko hirigintzan eta gizartean eragin zuzena izango du obrak Kanalaren behin betiko irekiera dela eta. Horregatik nahi izan dut islatu Kanalaren genesia artikulu-sorta batean apur bat gehiago ezagut dezagun Deusturi eman zioten labankada honen historia. Izan ere, bi guneren sakabanaketa eragin zuen, batetik Erribera eta bestetik Tellaetxe bereiziz. Ondorioz, bere lursaila eta bizimodua utzi behar izan zuten herritar askok, Gerra Zibil garaian burutu zen nahitaezko desjabetzeen bitartez.

Lehen proiektua, ez dezagun ahaztu, kanal bat eraikitzea zen, eta ez azkenik eraiki zuten nasa edo kaia, XX. mendeko 20ko hamarkadan sortu zen. Deustuko gazte batzuk aipatu didate, “betidanik bertan egon dela” pentsatzen zutela, baina ez da horrela. Egia da, prozesuak hainbat fase izan zituela, besteak beste, lursailen desjabetzea eta finantziazioa. Bai finantziazioa bai obraren exekuzioa Gerra Zibilaren ondorioz atzeratu ziren.

Bada, proiektuaren lehen berria prentsan 1927koa da. *Propiedad y Construcción* aldizkarian argitaratzen den artikuluan. E. Loygorri de Peredak sinatutako testuak *Alrededor de un grave problema. El complicado asunto del canal de Deusto* izenburua du.

Artikulu egileak dioenez, 1927an “ahaztuen artean, eragozpenak eta nahasmenduak sortzen ari den proiektua da, tamalez, hastapenetatik. Itsasadarra desbideratzeko asmoaz mintzo gara, Elorrietan hasita eta…



inork ez dakien lekuan amaitzeko". Arrazoi osoa zuen, 100 urte pasa baitira eta oraindik ez baitugu obraren amaiera ikusi. Azpimarratu nahi nuke, artikuluan aipatzen den moduan, hasierako ideia 'itsasadarra desbideratzea' zela, itsasadarra kai gisa gera zedin. Ideia hau argi ikus daiteke garaiko Nodotik jasotako irudietan.

Artikuluak beste kontu bat ere aipatzen du: "Lurgune horiek lurrezkoak baino txokolatezkoak dirudite. Obra Batzordeak, beraz, arriskua ekiditeko bitarteko egokienak aurkitzeko azterketa abiatu du. Bitarteko komenigarriena eta eraginkorrena eta bakarra itsasadarra desbideratu eta lur barnera eramatea da. Horrela, gainera, ubidea artez dateke hainbat abantailekin, besteak beste, ontzigintzarako, merkataritzarako eta industriarako gune bikaina lortuz".

Iñaki Uriarte arkitektoak, 2006ko *La ría y el canal de Deustu* izeneko artikuluan garai hartako Deustu zelakoa zen deskribatzen du: "Bilbotik gertu zegoen elizatea zen Deustu, iparraldeko mugan Banderas mendia eta Berriz auzoa zituen eta hegoaldean itsasadarra. Batik bat nekazal lurrak ziren eremuan sakabanatuta 9.000 biztanle zituen. Bazuen nukleo politiko erlijiosoa San Pedro parrokiaren inguruan, ibaiko lehen lerroa eraikia, erlatiboki etengabea, tailerrak, ontziola txikiak eta etxebizitzak zituena errepide eta sirga bidean zehar itsasadar bazterrean bere bokalera arte. Legez, 1924ko urriaren 29ko legea ezarrita, Bilbon txertatu zuten, beste zabalgune batzuekin batera, hala nola, Begoña eta Erandioko Lutxana auzoa. 1925eko urtarrilaren 1ean sartu zen legea indarrean.

Ondorioz, apur bat beranduago, 1926an Bilboko Udalak Hiribilduaren Hedapenerako Lehiaketa egin zuen publiko. Lehiaketako oinarrietan partaideei gomendatzen zien "amerikartasunetik ihes egiteko" eta "hobe da ona eta egingarria dena zoragarria eta ezinezkoa baino". Bertatik sortu zen *Proyecto de Extensión Urbana de la (Ilustre) Villa Bilbao con las anexiones de Begoña, Deusto y parte de Erandio*, 1929an Segurola eta Odriozola arkitektoek idatzia. Bertan ageri da jada Deustun kanal bat zabaltzeko borondatea. Segurola eta Odriozolak Portuko Obra Batzordearen aurretiko proposamena bere egin zuten. Batzordearentzat interesgarria zen ibarra hobeto aprobetxatzea itsasoko eta merkataritzako zerbitzuetarako".

"Lurgune horiek lurrezkoak baino txokolatezkoak dirudite"

Eta orduantxe sortu ziren lehen arazoak,



"Bilboko Udalak ezin baitzuen eraiki anexionatutako lursailetan Obra Batzordearen proiektuak ezagutzen ez zituelako. Deustuko herritarrak haserrea agertu zuten, hamaika arrazoigatik, ezin baitzuten euren sailetan eraiki..."

Horrela bada obrak egiteko proiektua Herri Lanetako Ministerioan aurkeztu zuten 1928ko otsailean eta urte bereko ekainaren 9an onartu zuten, R.O.-k eginiko agindu batzuekin, eta dokumentu gehigarriak idatzi zituzten. 1929ko urriaren 10ean onartu zituen R.O.-k, eta obrak kaltetutako lursailen desjabetzerako txostena zabaldu zuten. (Ikusi kaltetutako herritarren izenak 1929ko planoetan)

Jauzi egin dezagun 1931ra Enrique de Ocio y Urretak *Propiedad y Construcción* aldizkarian Deustuko Kanaleko proiektuari buruz zer idazten duen jakiteko. Dioenaren arabera, obraren tamaina hain handia denez obraren beraren exekuzioa eta lursailen desjabetzeari zuzenean eragiten die.

Bizkaiko Jabetza Hiritarreko Ganbera Ofizialeko abokatu-aholkulari denak dio:

“Obraren prestaketaren eta, neurri handiagoan, obraren egite teknikoaren garrantzia neurtzeko eta bereizteko beharrezkoak diren proiektuko zenbait atal ez dira nahikoa argi azaltzen. Irekierak kaltetetzen dituen lurren jabeen intereseko diren gaiak dira. Baita obraren finantziazioa ere”.

Enrique de Ocio y Urretaren arabera, Kanalaren eraikitzeak kaltetutako lursailen titularren jabetza eskubideak direla eta, Nahitaezko Desjabetzeen Legeari dagokionez, bistakoa da 43. artikulua ezartzeak sortzen duen bidegabekeria. 1918ra arte erabilpen publikoa zela eta lursaila galtzen zuen lur-eremuaren jabeari, desjabetzearen arduradunak 30 eguneko epean ez bazuen obra exekutatu, atzera egiteko eskubidea aitortzen zitzaion desjabetzean galdutakoa berreskuratzeko aukera emanez, desjabetzean eskuratutako diru kopurua itzultze soilarekin.

Geroz eta nabarmenagoa da aurreko testuak duen egokitzeko beharrizan onuragarria, egunez egun bere ezarpenak praktika bidegabeak eragiten baititu. Hortaz, desio dugu Nahitaezko Desjabetzeen Legeak duen akats handi hori zuzen dezala Espainiako ardura legegileak. Bere salbuespen izaeragatik, desjabetza jasan duen jabearen alde nabarmenki egin behar du lege berrituak”.

Baina 1942an (Gerra Zibilaren ostean eta garai frankistan) *La Basconia* aldizkarian ikus dezakegu zelan zehaztu zen Deustu zatitu zuen Kanalaren proiektua, kaian bukatu zena.

“Kanalak, Deustuko ebakian dagoen kaian hasi, elizako jaitsieraren parean, eta lehen bihurgune handi baten ostean, lerro zuzena eginez zeharkatzen du ibarra Elorrietara arte. Bertan berriro ere bat egiten du itsasadarreko egungo ubidearekin. Osotara, 2,409 kilometro luze da eta 100 metro zabal. Aipatutako bihurgunean ezik. Bihurgunean 30 metroko zabalera gehigarria du, itsasbeheran zazpi metroko sakonera duela. Horrek batik bat nabigazioa itsasbeheran egitera bideratzen du. Guztiz nagibarria izan daiteke marea erditik aurrera, 9,25 metroko sakonera duela.

Kanaleko eskuineko ibarrean ezartzen dira itsasoko zerbitzuetarako guneak eta hiriko merkataritzarako guneak. Bideak, estalpeak, bestelako lokalak, 20 metro zabal den kale batean, 50 metroko lursaila tarteko, itsasoko garraioak biltegiratzeko erabiliko dena, eta 15 metro zabal den beste kale bat ibilgailuen garraiorako erabiliko dena.

Gune berri hori itsasadarreko ezkerreko ibarrarekin lotu asmoz, eraikitze proiektuan ageri da zubi ‘igogailu’ eder bat, 650 metrokoa eta bi solairukoa. Goiko solairua ibilgailuentzat erabili nahi zuten eta behekoa Nerbioiko bazterreko bide zabaleko trenbide lineentzat”.

Konturatuko zinenez, irakurle, proiektua polita zen… paper gainean. Baina ez du ematen lursailen jabeek jasan zuten nahitaezko desjabetzeen gorabehereen berri.

(Jarraituko du)

“Desjabetza jasan duen jabearen alde nabarmenki egin behar du lege berrituak”

www.renault.es / 902 333 500

RENAULT BILBO BERRI

IBILGAILU BERRI ETA BIGARREN ESKUKOEN SALMENTA
MANTENTZE ZERBITZU AZKARRA • MEKANIKA • KARROZERIA

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU. www.bilboberri.com

RENAULT gomendatzen du elf

GIZA ESKUBIDEEN BILA

Guatemala eta Honduraseko gazteak giza eta umeen eskubideei buruz aritu ziren Deustuko Ikastolan, hezkuntzak gai horietan daukan garrantzia nabarmenduz.

Testua eta argazkiak
Nuria Arroyo

Azken urteotan aurrerapen ugari ikusi ditugu gure inguruan giza eskubideei dagokienez: emakumeen paperaren garrantziaren indartzea, umeen eskubideak aldarrikatzeko hamaika ekitaldi, etab. Hori baina, ez da leku guztietan gertatzen. Badaude hainbat herrialde guk daukagunarekin soilik amets egiten dutenak. Herrialde horietan borroka neketsuagoa da jendearen ahotsa ez delako hemengoena bezain indartsua, 'garapen bidean' dauden herrialdeak direlako.

Eta horien egoeraren berri emateko asmoarekin etorri ziren Deustuko ikastolara Guatemala eta Honduraseko sei lagun Jolas eta Ekin elkarteak azaroan antolaturiko egitasmoaren barnean. Jolas eta Ekin hiru Gobernuz Kanpoko Erakundek eratutako proiektua da, eta bi urterik behin beste herrialdeetan dituzten proiektuen artean bi aukeratzen dituzte eta hona ekartzen dituzte ezagutzera emateko. Giza eskubideak abiapuntutzat hartuta, aurtengo sei gazteek haien herrialdeetan egiten duten lanaz hitz egin zieten DBHko ikasleei, "klasean ikasten dutena indartzeko eta uler dezaten hezkuntza eskubide bat dela, edota ospitale batean zaindua izatea", dio Ivan Barriok, Jolas eta Ekineko koordinatzaileak.

Guatemalako Pedro Poveda Fundaziotik etorritako gazteek aitortu zuten fundazioa –Intered sarearen barne dagoena– Chinautlako komunitatean sortu zela umeen eskubideen aldeko proiektu baten beharra zegoelako. Horrela jaio zen *Xajanaj Kahalepana* proiektua. Izan ere, herrialdeak Umeen Eskubideen aldeko Hitzarmena orain dela 26 urte berretsi zuen arren, eskubide hauek oso urratuak izaten jarraitzen dute: LHn umeen %19 ez dira eskolara joaten; DBHn hamarretik lauk ikasten dute; eta unibertsitatera soilik gazteen %1 sartzen dira. "Egoera horrek ez die aukerarik eskaintzen gazteei", salatu zuen Jorge Monroy guatemalarrak. Euren proiektuarekin komunitateen ahotsak



indartu nahi dituzte, eta tresnak eman nahi dizkiete dagozkien eskubideak exiji ditzaten.

Honduraseko egoera ez da oso ezberdina. Landa eremuetan umeak txikitatik hasi behar dira dirua etxera ekartzen. Lan egiteko beharra dela eta, ez dute denborarik eskolara joateko. Horri aurre egiteko martxan jarri du SERSO elkarteak *Irakaslea etxean* proiektua, urrutiko hezkuntzaren antzera funtzionatzen duena. Horrela, gazteek lan egin dezakete bai eta ikasi ere.

Ikastolako ikasleen harriduraren aurrean azaldu zuten nolakoa den hango gazte baten eguneroko bizitza, eta zer nolako ahaleginak egin behar dituzten eskolara joateko. "Ikasleek egiten dizkigute galderak beste planeta batetik bagentoz bezala", zioen Keyli Pacheco hondurastarrak.

Horrela erakutsi nahi diete hemengo gazteei beren errealitateaz aparte badela beste errealitate bat alboko kontinentean, eta dauzkaten eskubideak aintzat har ditzaten, ez betebeharrak balira bezala, "eskubideren bat galduz gero oso zaila delako berreskuratzea."

Hamar egunetan zehar, Euskal Herriko bederatzi ikastetxetan ibiltzeaz aparte, hainbat instituzio publikorekin –horien artean, Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua edo Arartekoa– eta elkarterekin bildu dira gai honen garrantziaren inguruan aritzeko eta elkarlana sortzeko.

ARTEBI
MUSIKA, ARTE ESZENIKO ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN BILBOKO ESKOLA
MUSIKA - DANTZA
ANTZERKIA - GIDOIA
Jon Arrospide, 14 - 48014 Deustu-Bilbo tel: 94 475 85 33 faxa: 94 475 56 49
artebilbao@terra.es www.artebi.es

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

BENITA UNAMUNOREN ETXETXOA

Miguel Unamunok uda batzuk eman zituen Deustuan gaztetan, amamaren oporretako etxetxoan. Berak aitortu zuenez, betiko iltzaturik gelditu zitzaizkion gomutan, umeetako oroitzapenek bakarrik lor dezaketen moduan.

Testua: Hektor Ortega

2010ean Unamunoren burua eskegi zuten Ertzaintzaren polizia-etxearen aurre-aurrean, Agirre lehendakariaren etorbidearen ertzean. Bilboko Udalak paratu zuen, idazlearen omenez. Alboan, plaka batean, leku horretan jartzeko arrazoia erantsi zuten, Unamunoren liburu batetik hartutako ondoko testu hau: "Udako oporretan, etxekoekin batera joaten nintzen amamak Deustu aldean zeukan baserrira". Idazle eta filosofoak Deustuan igarotako une gozo haiek gomutara ekarri nahi zituen Bilbokok Udalak. Kontu horri argi apur bat ekartzen ahaleginduko gara.

Migel Unamuno, 1924 urte aldean. Argazkia: Kutxateka/Marin funtsa-Pascual Marin.

Deustuan etxea eduki zuen amama hura Benita Unamuno Larraza izan zen. Miguelen amama eta izekoa zen, biak batera. Amama, Salome Jugo Unamunoren ama zelako. Eta izeko, Felix Unamuno Larrazaren arreba zelako. Izan ere, osaba-lobak ziren idazlearen aita (Felix Unamuno Larraza) eta ama (Salome Jugo Unamuno). Benita, antza denez, lehenengo karlistadan etorri zen Bilbora eta bertan ezagutu zuen senarra, Jose Antonio Jugo zeberioztarra. Alaba bakarraz erditu zen, aipatu dugun Salome alegia. Alargundu eta gero, bigarrenez ezkondu zen, Antzuolako Jose Gabriel Narbaizarekin. 1873an bigarrenez alargundu zen.

Hil aurretik, hala ere, senar-emazteok etxea erosi zuten Deustuan. Basabe auzoan zegoen, baina Olabeagatik (Erriberatik) hurrean. Etxearen albotik igarotzen zen 1861 urte aldean Olabeaga eta eliza lotzeko eraiki zuten bidea (Ramal de Olabeaga). Landa-etxea zen, baina etxetxo apala. Ortua zeukan inguruan eta, jakina, mahastiak eta arbolak.

Unamuno gaztearen oporrak

Unamuno nerabea pozarren joaten zen Deustura, amamaren etxera. Uda osoa ez ezik, udagoieneko lehenengo zatia ere gure herrian ematen zuen. Honela kontatu zuen: "Deustuan luze egoten ginen, ikasturte berria hasi eta San Martinetako uda txikia igaro arte". Gomutan iltzaturik geratu zitzaizkion udabeteko egun haietan "mahats beltzezko mahasti baxuen azpitik makurturik ibiltzen ginela, aurpegia aramu-sarez beterik, ostu-ostuka olgetan; eta igerian ikasten arto-soloen artean, baita irasagarrondora igotzen ere".

Deustuko uda gozo haietan, etxetxoan, Antonio Truebaren 'Mari Santa' eleberria irakurtzen zirrara sentitu zuen Unamuno gazteak, "ikustean liburuak aipatzen zituen lekuak etxetxo hartako balkoitik ikusi ahal nituela, eta Etxezuri baserria aipatzen zuen, hantxe ber-

Eskuineko etxe handia da Ustararen jauregia. Hortxe zegoen Unamunoren amamaren etxea. Atzerago, Gor-mutuen ikastetxea. Argazkia: Txema Luzuriagaren bilduma.

tan zegoena. Orduan hasi nintzen sentitzen zer den arteari estu lotutako leku batean bizitzea". Amamaren etxetik Etxezurira (geroago futbol zelaia atondu zuten lekura) bost minutu besterik ez zegoen.

Etxetxoa eta ortuak, esan legez, lorratz sakona laga zuten gaztearen bihotzean. Behin baino gehiagotan aipatu zituen baratzean egindako egunak, beti ere malenkonia zipriztinez. Madarira igota irakurritako olerkiak, laranjen usaina, txinboetatik ortura igotzen ziren kresalezko ur-biziak...

Unamunoren uda haiek batez ere gerra karlistaren ostean izan zirela pentsa genezake, 1876tik aurrera alegia. Baina ez luzerako. Amama Benita 1880an hil zen, Migel gaztea Madrilera unibertsitate ikasketak egitera joan zen urtean alegia. Ostean, Deustuko etxaldea saldu zuten. Cirilo Ustara meatze-ugazaba aberatsak eskuratu zuen. Etxetxoa eraitsi eta haren lekuan egundoko jauregia altxarazi zuen. Deustuko Kanala egiteko bota zuten 1950. urtea baino lehen.

Unamunok jakin zuen etxetxoarekin zer gertatu zen. Eta haren arima minberari ez zitzaion batere gustatu. Honela kontatu zuen: "Orain dela urte gutxi batzuk, arratsalde batez etxetxoa egon zen lekutik igaro nintzen, aspaldiko partez, eta haren lekuan etxetzar itzel, astun eta harroa ikustean, eta gure ortua, fruta arbola eta mahastiekin hain etxekoa eta hain apala zena ingeles erako parkea bihurturik ikustean negar-malkoak etorri zitzaizkidan begietara. Nire etxetxoa betiko galdu da".

Kapitalismoaren garapena Deustua itxuraldatzen hasia zen. Oligarkek baserri eta soloak erosi zituzten jauregi itzelak egiteko (Bidarte, Sarrikoko Goi-Eder, Arbolarte...). Jarraian lantegiak eta langile-auzoak etorri ziren, azkenean hirigintza garaikidea heldu zen arte.

KANTA MAITATUAK

"Autoekoizpen" eran kaleratu du Leire Saituak Miguel Comasekin batera, iAuBe taldearen izenarekin, 'Zuhaitz eta zubi' diskoa.

Testua
Lur Mallea

Ez dago disketxerik 'Zuhaitz eta zubi' diskoaren atzean. "Guk pentsatu eta guk erabaki dugu", dio Leire Saituak, iAuBe taldeko erdiak. Beste erdia Miguel Comas da, eta bere etxean duen estudioan grabatu eta nahastu dute laugarren lana. "Gaur egun ordenagailu batekin eta hainbat programekin egiten delako sasoi baten hiru metro luzeko nahasketa mahai batekin egiten zena".

iAuBeren aurreko diskoa "gehien bat elektronikoa" zen. Ez zuen gitarra, baxu eta bateria fisikorik, *solo* batzutan izan ezik. Horrek "askatasun handia" eman zien Leire eta Migueli esperimentatzeko, nahiz jakin horrelako musikarekin "apur bat zailagoa" dela jendearengana heltzea. "Gustura gaude lan horrekin. Lan ederra egin genuela uste dut esperimentazioan eta ikerketan", dio Leirek. Barruan zutena "ondo ateratzea" lortu zuten. Hori ei da musikan eta oro har artean zailtasun handienetako: "Barruan daukagun sentipen hori atera eta irudikatzea. Hor tarte horretan asko galtzen dira, barrukoa irudikatzen asmatu ez delako. Gu oso gustura geratu ginen hirugarrenarekin, eta denbora pasata ikusi dugu disko potentea dela. Oraindik ere jarraitzen dugu kanta horiek zuzenekoetan jotzen".

Laugarren diskoa "desberdina" da. Leirek eta Miguelek "asko maite" dituzten musikarien kanta jakin batzuk hartu –"ez dira abesti oso ezagunak gehiengoarentzat"–, egileei "baimena eskatuta", eta letrak aldatu edota ipini dizkiete. Hitzik gehienak Leirerenak dira. Uztartu dituzten ekarpenen artean daude Maialen Lujanbioren bertso batzuk, "kartzelan bisita batean Marixol Iparragirre eta Mikel Antzarekin egindako hitz batzuk", Hasier Rekondorenak, Jurgi San Pedrorenak, Omar Nabarrorenak (Edorta Jimenez) edota Jose Blancorenak. Blanco poeta eta kantariak zuzeneko emanaldietan lagundu die bai Gernikan bai Barakaldon emandako kontzertuetan. Aurreko saioekin alderatuz, disko berria aurkezteko emanaldiek "antzerki kutsu apur bat" daukatela nabarmentzen du Leirek.

Etxera heltzean, telebista piztu ordez, "arnasa hartu eta egun osoko emozioen lixeriketa egiteko balio duen musika" sortzen ahalegindu dira. "Emozioekin konektatzeko musikak duen gaitasunean" sinesten dutelako. Kantuan, eszenatokian, emozionatu egiten da Leire. Bartzelonako kontzertuan horixe gertatu zitzaion, eta nolabait, entzuleak ere hunkitzera iritsi zen. "Teknikoki ez zen kontzertu ona izan, baina hortik beste kontzertu bat atera zaigu. Entzuten ari zen pertsona batek eskatuta abuztuan Sant Llorençeko monastegiko klaustroan jotzeko aukera izango dugu".

Hurbilago, Gasteizen otsailaren 11n emango dute kontzertua Extitxu tabernan. Lotuko dituzte gehiago ere, baina kontzertuak lotzeko "mugitu egin behar da", eta batzutan Leire horretarako gogotsu egoten da, "eta beste batzutan ez".

Bost urte Auzolan proiektuan buru-belarri eman eta gero, Leireren apustua "geroz eta gehiago komunalera pasatzea da", eta apustu edo "mandala" hori musikara ere eraman nahi du. "Uste dut etorkizuna hortik datorrela, komunaletik, auzolanetik, konpartitzetik, zeren merkatuan ez daukagu zereginik. Merkatuan gaur egun hemen BBK Live dago, eta horrek musikalki

dena jaten du. Nik merkatura ez dut joan nahi. Zein bide aurkituko dugun? Bada, hor gabiltza. Guk ere nahi dugu gure musika zabaldu eta kontzertuak egin, baina komunaletik".

Formatu txikia darabilte zuzenekoetan. Izan ere, gaur egun iAuBerentzat "ez da posible bost musikarik osatutako banda bat muntatzea". Eta hala ere, Leireren ametsa bete da, eszenatokira igotzen diren aldiro, besteak beste, Iñaki Salvador edota Jean Marie Ecayren abestiak interpretatzen dituztelako. Ordenagailu bat da abesti horien oinarria erreproduzitzen duena, horren gainean Leirek eta Migelek kantatzeko. "Modu batera edo bestera lortu dugu eurekin kantatzea".

13 minutuko kanta bat eta laburmetraia

Hirugarren diskoan zazpi minutuko iraupena zuen kanta bat bazegoen laugarren diskoan 13 minutuko abesti bat dago. Musikan "neurriz kanpokoa" izan daitekeena batzuentzat. Iñaki Salvadorren *Pathology* abestia da. Horri erantsi diote Edorta Jimenezen *Lepoaren geografia* olerkia. Emaitza *Pathology - Lepoaren geografía* da, "oso potentea" eta "oso polita". Leireren hitzetan "maitasuna egiteko 13 minutuko tutoriala da. Beste aldera iristea berantezten ari den bitartean pausoak zehatz deskribatzen dituen olerkia da. Euskal tantraren tutoriala izan daiteke".

Abesti horrekin ikus-entzunezkoa egiten ari dira Leire eta Miguel Arrate Fernandez zuzendariarekin batera. Hortaz, 13 minutuko bideoklipa baino "laburmetraia izango da".

Barruan aldaketa

Asko eskatzen dio bere buruari Leirek. Bere baitan sarri pentsatzen du "zergatik nago eszenatokian? Merezi dut hemen egotea?". Zalantza unearen ostean, konfidantza berreskuratzen du: "Bai, ni sei urterekin hasi nintzen eszenatokietan abesten, eta hemen barruan badut zeozer". Atera beharreko zeozer, eskaintzeko zeozer. Bere ahizpa Olatz Saitua sopranoa ere "oso exijentea da bere buruarekin". "Beti dago 'merezi dut hau egitea' galdetzen". Arduratsuak dira biak ala biak. Ez baitute "jendea entretenitu nahi bakarrik". Leireren guraria da ordu eta erdiko yoga saio baten onura bera lortzea bere musikarekin. "Yogaren ostean jendea beste modu batera irteten da, lasai, kontzentratuta, norbere buruaz gustura. Nahi nuke horrelako zerbait gertatzea jendea gure kontzertutik irteten denean. Ez denbora-pasa soila izatea. Kontzertuko entzule guztiek barruan aldaketa bat izatea nahi nuke".

berbetan

DANEL ABANDO OLABARRIrekin

'Deustuko tigrea', 'Flaco' boxeolari amateurra

Testua: Lur Mallea
Argazkiak: Iñigo Azkona

"Boxeoaren atzean

Garaipen urtea izan da hau Danelentzat. Bizkaiko txapelketa, Bizkaiko torneoan boxeolari onenaren saria, Euskadiko txapelketa eta Espainiako txapelketan brontzea eskuratu ditu boxeo amateurrean, oilar kategorian. Profesionaletarako bidean, atseden hartzea erabaki du.

mami asko dago”

Zergatik boxeolaria eta ez futbolaria?
Izan, izan nintzen futbolaria. Danok Bat taldean jokatu nuen, baina ez oso motibatuta. Gero karatearekin frogatu nuen, baina ez zitzaidan gustatu, eta 14 urterekin boxeoa frogatu nuen Bilboko Club Deportivon. Hainbeste gustatu zaitzaidanez boxeoan jarraitu dut orain arte.

Egun 21 urte dauzkazu. Zein izan da zure boxeo ibilbidea?
Entrenatzaile kubatar batekin hasi nintzen entrenatzen, eta berarekin eman ditut urte gehien. Berak irakatsi dizkit boxeoa eta boxeoaren inguruan dauden balore piloa.

Zeintzuk dira balore horiek?
Lanaren balioa, adibidez, irmotasuna edota kiroltasuna. Boxeoaren ikuspuntu desberdin bat irakatsi dit. Nik uste nuen boxeoa borroka zela, beste pertsona baten aurkakoa, eta ikasi dut boxeoaren atzean mami asko dagoela. Zientzia, teknika eta estrategia asko dagoela.

Boxeolari atipikoa zarela diote. Zergatik?
Inteligentzian oinarritzen dut nire boxeoa. Beti ahalegintzen naiz aldez aurretik pentsatzen zer egingo dudan, zergatik egingo dudan, noiz… Ez naiz pentsatu gabe beste pertsona bat kolpatzen hasten. Nire ezaugarri fisikoak kontutan hartuta, planteamendua landu ohi dugu, boxeatzeko era adostu eta plana martxan jartzeko.

Zeintzuk dira zure indarguneak? Zeintzuk zure ahulguneak?
Gehienez 56 kiloko aurkariekin lehiatzen naiz oilar-pisuan. Normalean aurkariak ni baino baxuagoak eta oso indartsuak izan ohi dira. Nire kategoriarako altua eta argala naiz. *Flaco* deitzen didate horregatik. *Deustuko tigrea* da nire beste ezizena. Distantziatik boxeatzen dut, kolpe zuzenekin eta burua asko erabiliz.

2016an hiru titulu eskuratu dituzu. Espero zenituen hainbeste garaipen?
Ikaragarria izan da. Orain dela urtebete ez nukeen sinetsiko. Kepa Sabin entrenatzaileak du merituaren zati handi bat. Berarekin urtebete eman dut eta berarekin lortu ditut hiru tituluak. Berari esker izan da. Oso entrenatzaile ona da.

Bizkaiko txapeldun, Bizkaiko toneaon boxeolari oenarren saria, Euskadiko txapeldun eta Espainiako txapelketan brontzezko domina oilar kategorian.

Zein izan da zuretzat sari handiena?
Sari handiena entrenatzailea nire lanarekin harro egotea da, nire boxeatzeko erarekin harro egotea. Hori lortuz gero, gainerakoak berdin dio.

Amateur mailan lehiatzen zara. Zelako baldintzetan?
Amateur izatea ez da txarragoa izatea. Boxeo amateurra eta profesionala oso kirol desberdinak dira. Amateurrak bere arauak dauzka. Eskularruak desberdinak dira, eta hiru asaltora bakarrik jokatzen da, bakoitza hiru minutukoa. Profesionaletan, berriz,

“Ez naiz pentsatu gabe beste pertsona bat kolpatzen hasten”

berbetan

DANEL ABANDO OLABARRIrekin

▷▷ SAKONEAN

“Buruarekin eta teknikarekin borrokak irabazten ditut”

Bi ezizen dituzu: *Flaco* eta *Deustuko tigrea*. Zuk hautatuak dira ala beste norbaitek ipinitakoak?

Entrenatzaileak ipinitakoak dira. Deustuko tigrearen ondoan bizi naiz betidanik. Goizeko bostetan loguretuta korrika egitera irteten naizenean tigrea hor goian ikusteak asko motibatzen nau. Horrekin identifikatzen naiz. Flaco oso argala naizelako jarri zidaten. Nire ondoan denek ematen dute indartsuagoak eta egurtuko nautela dirudi, baina buruarekin eta teknikarekin borrokak irabazten ditut. Horregatik harro nago flaco izateaz.

Gizonen kirola da?

Neskak animatu nahi ditut boxeoa praktikatzera. Badaude neska oso onak entrenatzen dutenak mutilek bezain ondo. Boxeo profesionalean emakumeek badute oso paper mugatua, kartela eta titiak erakustea, ikusleek txistu egiten dieten bitartean. Ez dut gustuko hori. Boxeo amateurrean ez dago neskarik kartela eta titiak erakusten. Nik emakumeak boxeoan ikusi nahi ditut.

Neska eta emakumeen gorakada izan da boxeoan?

Ez dira hainbeste. Boxeoaren inguruan gizontasun eta harrotasun ideia oso zabalduta dago. Baina boxeoa ez da hori; aldatu beharreko zerbait da. Emakumea gizona bezain indartsua izan daiteke boxeolari ona bada.

12 asalto izan daitezke. Normalean 60na euro jasotzen ditugu borroka bakoitzean, baina batzutan ogitarteko bana ematen digute, eta beste batzutan etxera esku hutsik joaten gara.

Boxeolari profesional izateko aukera baduzu?

Aukera badaukat. Nire entrenatzaileak Euskal Herriko eta Estatuko promotora handienetako batekin lan egiten du, EuskoBoxekin. Baina une honetan atsedena behar dut, lehiatzeari utzi diot, entrenatzeaz gain lanean eta ikasten ari naizelako, eta ezin dudalako denera heldu.

Zientzia politikoak ikasten ari zara eta boxeo klaseak ematen egiten duzu lan Sarrikon Blakz Team gimnasioan eta Getxon. Ezinezkoa da dena uztartzea?

2015/16an hiru titulu lortu nituen, baina gimnasio bakarrean egiten nuen lan apur bat, eta ikasteari utzi behar izan nion. Uneoro nengoen entrenatzen. Oso gustuko dut irakurtzea eta ikastea, eta pentsatu dut boxeoaz gain ikasi eta lan egin beharra daukadala. Ez dit ematen denborarik dena egiteko. Boxeoa asko maite dut baita lehiatzea ere, eta ikastea eta nire dirua edukitzea, eta ez amari eskatzen ibiltzea. Orain nire kabuz entrenatzen ari naiz, ikasten eta lanean.

Zelan irudikatzen duzu etorkizuna?

Pozik nago, nire erabakia izan baita lehia uztea. Orain ikasten eta lanean nago, baina bizitzak buelta asko ematen dituenez, nork daki. Boxeoan jarraituko dut, nire bizitza da 14 urte nituenetik.

Zer ematen dizu boxeoak?

Topikoa den arren, bizitzeko era bat da niretzat. Ez dut alkoholik edaten, ez dut erretzen, ez naiz parrandan ateratzen… boxeoak bizitza dinamika bat eman dit. Ikasi dut zerbait lortzeko esfortzatu behar duzula, lan egin behar duzula, lasterbideek ez dutela balio. Boxeoan zu bakarrik igotzen zara beste pertsona baten aurka borrokatzera eta hor ikusten da lan egin baduzu eta lana serio hartu baduzu.

Zergatik ez duzu gustuko boxeo profesionala?

Dena diruaren inguruan oinarritzen delako. Ez du saritzen boxeolari ona, sarrera gehien saltzen duena edota odol gehien eragiten duena baizik. Profesionaletan ikus dezakezu kubatar boxeolari bat oso fina, esgrima onekoa, baina kolpe gutxikoa ikusleen txistuak jasotzen eta mexikar boxeolari bat, aldiz, bi begiak odoletan dituela jendearen txaloak jasotzen. Hori da boxeo profesionala. Gainera, aurkariak hautatu egiten dituzte. Boxeolari ona izanez gero, Kerman Lejarraga modukoa adibidez, bere promotoreak pisu gutxiagoko aurkaria hautatuko dio, okerragoa, K.O. egiteko eta dirua irabazteko. Amauterrak maitasunez egiten dena adierazten du, profesionalak diru truke egiten dena.

Bizkaian bogan dago boxeoa?

Historikoki Bizkaian, Euskal Herrian eta Estatu mailan beti egon da boxeozaletasun handia. Urtain eta boxeolari on asko egon da hemen. Boxeoa telebistan debekatuta dago 22:00ak arte, eta horregatik zaila da jendea zaletzea. Boxeoa ikusteko zaleek 20 euro ordaindu behar dute eta gaubela batera joan. Eta jendeak jarraitzen du gaubeletara joaten. Orain, gainera, Kerman Lejarraga, Jon Fernandez eta Andoni Gagori esker boxeozaletasunak gora egin du.

Boxeo amateurrak ere gora egin du?

Bai, boxeo profesionalak amateurrari laguntzen dio. Dinamika bera dute. Boxeo gaubela antolatzen denean lau borroka amateur eta profesional bat lotzen dira. Ikusleek profesionalak ikustea nahiago du, K.O. gehiago dagoelako eta espektakulu gehiago dagoelako.

BECeko borroka batean boxeolari batek K.O. amaitu ostean, koma egoeran eman zituen hainbat egun. Zer deritzozu?

Niretzat boxeoa kirola da, eta kirolak osasunetik asko du. Pertsona batek borrokan jarraitzeak koma egoerara arte ez du zentzurik. Hori diruak eragiten du. Boxeoa beste zerbait da.

Baduzu amets berezirik?

Badut amets bat. Boxeoari aukera eman eta boxeoa ezagutzera jendea hurbiltzea nahi nuke. Ez telebistan ikusten den boxeora edota aldizkarietako boxeora, boxeo errealera baizik, adibidez boxeo eskolara. Gimnasio asko eta eskola gutxi daude. Entrenatzaile asko eta irakasle gutxi daude. Hori islatzen da boxeolariengan.

“Pozik nago, nire erabakia izan baita lehia uztea”



BERBAIZU

Iparralde Gaualdia itzela ZAWPen!

Gaualdi itzela pasatu genuen abenduaren 3an ZAWPen. 21:00etan Pacok grabatzen ari den diskoa aurkeztu zigun. Ahots goxoa dauka baxenafarrak eta bere kantekin kulukantu gintuen. Gero, Begiz Begi taldearen txanda heldu zen. Baionako taldeak 'Hatsa' (2016, Baga Biga) disko berria aurkeztu zigun, 2015eko Banden Lehia irabaztearren garaikurra dena. Gerriak astintzeko moduko kantak egin dituzte lapurtarrek. Bien bitartean, Ipargaldetegiaren saria banatu genuen, Jone Martinek eroan zuena. Asteburu bat pasatuko du Aldudeko Menta ostatuan. Ezin kronika bukatu Etxeko Bob's Beer aipatu barik. Hazparnetik ekarri genituen 90 litro garagardo ia bukatu genituen Iparralde Gaualdiara hurreratu ginen lagunok. Itzel pasatu genuen ZAWPen, Iparralde Zikloari merezitako agurra emanez. Adiorik ez!

HERRIKO TABERNA

30. urteurreneko ekitaldiak ikasturte osoan zehar

Abenduaren 16an izan zen lehen jarduera, "Neguko libre jaiarekin". Txalainak taldeak eta Urko eta Delbak kontzertua eskaini zuten. Otsailean izango du jarraipena urteurrenak. Oihana Bartra, Jon Maia eta Arkaitz Estiballes hirukoteak eskainiko duen bertso-bazkariarekin. Beren-beregi prestatutako menuaz gain, aukera begeta eta umeentzako menua ere eskainiko dute. Tiketak salgai daude jada Herriko tabernan bertan. Udaberrirako asteburu "berezia" antolatuko dute. "Asteburu osoko egitaraua" prestatzen ari dira Deustuko Herriko tabernako lagunak. Besteak beste, "bazkari handi bat" egitekoak dira "belaunaldi ezberdinak bildu asmoz".

IRAKURLEEN TXOKOA

Urtarrilaren 11n, Joxean Agirre

Joxean Agirre (Azpeitia, 1949) idazle eta kazetari azpeitiarra Irakurleen Txokora hurbilduko da urtarrilaren 11n *Gizajoen katalogoa* (2016, Elkar) bere eleberriari buruz hitz egitera Deustuko irakurleeekin. "Literatura-tailer bateko ikasle gizonezko heldua, irakasle emakumezko ederraren maitasuna lortzearren, eleberri bat idazten hasiko da, bera bezalako gizajoen pasadizoak bilduz, eta argumentu bat sortu ezinik, autofikzioaren bidezidorretan abiatuko da. Sentsualtasuna eta metaliteratura, parodiaraino eramanak". Hori da *Gizajoen katalogoa*-ren sinopsia. Parodia kutsua duen eleberria.

Eusebio Garcia Alonso kalea Benita Asas kalea izango da

Bilboko Udalak hiriko beste hiru kaleren izenak aldatu eta izen berriak esleitzea erabaki du, Memoria Historikoaren Legea izenaz ezagutzen den abenduaren 26ko 52/2017 Legea aplikatzeko prozesua betez. Horietako bat da San Inazioko Eusebio Garcia Alonso kalea.

Aurrerantzean Benita Asas Manterola (Donostia 1897- Bilbao 1968) irakaslearen izena izango du. Pentsamendu eta militantzia feministaren figura handietako bat izan zen eta gizonezkoen eta andrazkoen eskubide berdintasuna defendatu zuen.

Izen aldaketa ez da indarrean sartuko 2017ko otsailaren 1era arte, eragindako pertsonak (auzokoak, merkataritzako establezimenduak, higiezinen titularrak...) era egokian eta behar den aurrerapenaz informatuta egon daitezen eta egin beharreko aldaketei buruzko galderak eta zalantzak helarazteko aukera izan dezaten.

Urtea: 1951

Txema Luzuriaga

Obraren hastapenak

Deustuko Kanaleko obraren hastapenekin jarraitzen dugu, edo 1951n deitu zitzaion moduan 'Bilboko itsasadarraren desbideraketarekin Deustuko ibarretik'. Irailean ikusi genuen bezala, Gor-mutuen Kolegioaren aurrealdean Urkiza baserria zegoen. Madariaga bideak banatzen zituen. Nahiz lehenago hiri bide horrek Olabeagako Adarra izena izan zuen. Argazkian Gor-mutuen Kolegioak izan zuen futbol zelaia ikus daiteke, eta hormatik eskuinerantz jarraituz gero Villa Maria Luisa, eta atzean salestarren pabiloiak. Eskuinean Linos baserria eta La Salle kolegio zaharra.

Bilboko Portu Agintaritzak utzitako argazkia.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfnoa: 94 475 11 24

www.bilbohiria.com
BI-96.0-FM
Bilbo-Hiria irratia
berriak * musika
elkarrizketak

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 94 600 14 24
alonsoper@euskalnet.net

AUTO ESKOLA
SAN CRISTOBAL
Madariaga etorbidea, 39
Tfonoa: 94 475 16 27
48014 DEUSTUA

Barnizados La Ria
Berriztatzeak
Lakadok
Birpasak
Jon arrospide, 11 -4º deusto
94 476 15 98
www.barnizadosylacados-laria.com
Bernizaduran artea

artez
euskara zerbitzua
Probatu
herrizki.eus
ANDROID APP
Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!

A&G
ASEGESA
Lege, lan, zerga eta kontabilitate
aholkularitza
Blas de Otero,61 Deustua
Tfnoa: 94 475 14 02

RONDOKO
HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
☎94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS
CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

Zelan aldatuko eta hobetuko zenituzke gabonak?

Nerea
Deustu

Opariei garrantzia eman ordez elkarrekin egoteari emango nioke. Mari Domingi Olentzeroren atzetik dabil beti, eta aurretik jarriko nuke.

Leire
Deustu

Gabonen prestaketak suposatzen duen lana beste era batera banatu beharko genuke edota bestelako ospakizuna egin.

Mar
Artea

Nostalgia kutsua eta kontsumismoa kenduko nieke eta sormena erantsi. Xanpaina ez den beste zerbait edaten hasi behar dugu.

Jon
Artea

Ez ditut gustuko gabonak. Aldaketa handiak egingo nituzke. Hasteko, gabonetako argi guztiak amatatuko nituzke.

Martin
Deustu

Iragarkiak eta kontsumismoa elikatzen duen edozer ezabatuko nituzke.

Urtzi
Deustuibarra

Ez dute ezer originalik gabonek, hortaz originaltasun gehiago behar dute.

>> GAZTE LOKALA

25 URTE HEGOAK ASTINTZEN

Hilabete pasa da jada Deustuko Gazte Lokalaren urteurrena ospatu genuela; eta 25 urte, berriz, Deustuko zenbait gazte ameslarik gaur egun denon artean eraikitzen jarraitzen dugun proiektuaren lehen oinarriak jarri zituztela. 25 urte hegoak astintzen hasi ginela!

Testua eta argazkiak: Deustuko Gazte Lokala

Urtemuga ospatzeko, Gazte Lokalean biltzen garen eragile eta norbanakook elkarlanean, egitarau zabala prestatu genuen; elkartu eta ekintza desberdinez gozatzeko aukera sortuz. Astean zehar, eztabaida, hausnarketa eta formakuntzarako tartea izan genuen, gai desberdinak landuz: gazteon alternatiben eraikuntza, errepresioa, sexualitate ez normatiboak, errefuxiatu eta migranteen egoera... Egunero taldeek antolatutako hitzaldi eta jarduerez gain, fanzine erakusketa ere izan genuen Txoridendan ikusgai.

Asteburuan berriz, jai giroa izan zen nagusi. Poteo batekin eman genion hasiera larunbatari, apurka-apurka gero eta jende gehiago biltzen hasi ginelarik eta konturatzerako, bazkaria prest genuen Done Petri plazan. 60 gazte inguru elkartu ginen bazkarian, eta giro atsegina sortu zen bazkalosteko bingo musikatuan! Arratsaldean musika afrikarraren erritmoan dantzatzeko aukera izan genuen, baita gauean, Gazte Lokaleko kontzertuez gozatzekoa ere! Finean, aste oso bat izan genuen, denon artean antolatutakoaz gozatzeko.

http:// sarekada

protokoloa.eus

Donostiako Protokoloa jasotzen duen dokumentua eskuragai dago

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloak, Donostian abenduaren 18an aurkeztuak, 185 neurri jaso ditu, alorrez alor hizkuntza eskubideak bermatzen direla ziurtatzeko. Horrekin batera, protokoloaren egile eta sinatzaileek 11 printzipio ere txertatu dituzte agirian, hizkuntza eskubideen deklarazioa oinarri hartuta; besteak beste, lehentasun politikak eskatu dituzte.

---

www.zinemauneak.eus

Euskara eta Zinemaren topalekua

Zinemari eta telesailei eskainitako euskarazko atari digital bat sortu dute Lander Arteagak eta Sara Sebastianek. Nabarmendu dute "hutsune bat" bete nahi dutela. Zinema atari konbentzionalen modukoa izan nahi du atariak, baina euskaraz. Proiektua aurrera eramateko, Jaurlaritzak diru laguntza txiki bat eman die atariaren sustatzaileei. "Baina horrekin ez ditugu gastu guztiak beteko". Horregatik finantzaketa kolektiboko kanpaina jarri dute abian.

---

web.bizkaia.eus/eu

Webgune eta sare sozial berrituak Bizkaiko Foru Aldundiak

Modernoagoa eta hurbilagoa da webgune berria, eta aurkezten duen edukien sailkapena pertsonei zerbitzu hobea emateko pentsatuta dago, eta gainera alor ezezagunagoei buruzko informazio interesgarria eskaintzen du. Proiektu handiago baten lehenengo fasea da, hazteko eta herritarren beharrizanei egokitzeko asmoz jaio dena.

---

berbaizu.eus



Auzoan non kontsumitu euskaraz

Gabonetarako eta ondorenerako ere, Berbaizu Euskara Elkarteak "Hemen euskaraz, hemen berbaizu" pegata duten saltokien zerrenda eguneratu eta blogean argitaratu du, Deustualdeko eta Bilboko biztanleek euskaraz non kontsumi dezaketen jakin dezaten. Guztira, 40 saltoki dira Deustualde osoan pegata hau daukatenak, baina ziurrenik saltoki gehiago izango dira, beraz pegata ez duen saltokirik ezagutzen baduzue, idatzi Berbaizura eta pegata helaraziko dizuete.

Urteurrena igarota, hemendik aurrerako erronkak ditugu orain buruan. Gazte Lokala etengabeko eraldaketan dagoen espazioa izanik, gure jardunak ere etengabeko hausnarketa eta egokitzapenaren beharra du aurrera egiteko. Hori dela eta, aurrera begira, bi hilabetean behin, asanblada orokorrak antolatzeko asmoa dugu, eragileetako partaideen zein norbanakoen topaleku izango direnak!

Beraz, hemendik aurrera zer? Lanean jarraitzea da gure asmoa, herritik eta herriarentzat lanean, dugun indarra ehuntzen, hausnartzen, sortzen eta kolektiboki borrokatzen. Orain arte bezala, hegoak astintzen eta txoriak askatzen jarraituko dugu!

@DeustukoGL
facebook/DeustuukoGazte

>> PINTURA

MUNDUA MARI CARMEN CABEZONEN BEGIETAN

70 urterekin, Mari Carmen Cabezon margolariak erakutsi digu inoiz ez dela berandu zaletasun bat bihotzez jarraitzeko. Berak horixe egin du azken 20 urteotan, margotu eta margotu. Eta horren froga ditugu, besteak beste, Bilboko itsasadarreko koadro ugari.

Testua: Nuria Arroyo - **Argazkiak:** Prest!

Orain dela 20 bat urte hasi zen zaletasun honekin, margotzen jakin barik, bere burua kokatzen saiatzen. Bere seme-alabak nagusitzen joan zirenean Mari Carmenek, denbora libre gehiago edukitzen hasi zen, eta erabaki zuen margotu nahi zuela.

Udalak antolaturiko tailerretan izena eman zuen eta Esperanza Yunta margolariarekin hasi zen margotzen ikasten. Yuntarekin, artearen munduan murgildu zen, eta antolaturiko erakustaldietan berak egindako koadroekin parte hartzeko aukera ere izan zuen.

Eginiko lehenengo margolana maitasun handiz gogoratzen du. “Etxe bat margotu nuen, eta etxera eraman nuen ilusioz beterik familiari erakusteko. Heltzean auzotar batekin topo egin nuen, eta erakutsi nion. Zera esan zidan: “Zein polita, zure bilobak margoztu du?”. Nire ilusioa pikutara joan zen”. Hurrengoetan ere, ez zuen familiaren babes handirik jaso, oso kritikoak baitziren bere margolanekin. Izan ere, etxe bat edo teilatu bat margotzen denean, arreta handia jarri behar zaie distirei eta itzalei. Baina berak orduan ez zuen teknika ondo menperatzen eta etxean, ingeniariez inguratuta, akats horiek nabarmentzen zizkioten, “etxe horren balkoia jausten ari zaizu” edo “etxe horrek ez dauka ihespunturik” bezalako komentarioekin. Baina Mari Carmenek aurrera jarraitu zuen, eta garai hartan huskerian murgiltzen zuten momentuak barre artean gogoratzen ditu orain.

Bere irudimena esnatuz zihoan heinean, gero eta xehetasun gehiagorekin margotzen zuen. Eta denbora joan ahala, abilezia handitzearekin batera, irakasleengandik eta kideengandik teknika eta trikimailu ugari ikasi zituen.

Olio-pinturekin hasi zen, baina akrilikoa nahiago duela aitortzen du, koloreak “biziagoak” direlako. Baina denetarik erabili izan du, argizarietatik collage teknikara. Beti tamaina handian, hori bai. “Horrela, margoa bota dezakezu eta orban horretatik irudi bat eratuz zoaz. Margotu bitartean, mundua gelditzen zaizu.”

Erretratuak aldiz, oso txarto ateratzen zaizkiola dio Mari Carmenek. “Behin senarraren irudia margotu nuen, eta galdetu zidan ia horren itsusia bazen”, dio irri artean. Margoketa errealista ere ez zaio asko gustatzen. Horretarako nahiago du argazki bat atera.

Paisaiak, horiek bai gustatzen zaizkiola. Batez ere, Bilboko itsasadarrarekin lotutakoak.

Josemi Arranz margolariarekin ere ikasi zuen hiru-hilabete baten. Berari buruz dio asko gustatzen zaiola erabiltzen duen teknika, “txukuna eta sormenezkoa”. Hari zor dio leihoetan zehar paisaiak margotzen ikasi izana, leihoak margotzea itzel gustatzen zaiolako Mari Carmeni. Fereka handiz gogoratzen du horietako bat: Zarautzeko badia kristaletan zehar ikusita. Izan ere, itsasadarrarekin batera, ura margotzea maite du,

eta berak dioen bezala, esan daiteke “urez eginda nagoela.”

Egindako margolan horietatik ugari saldu ditu, askotan. Marko saltzaileei koadroak eskaini eta hauek jendeari saldu dizkie. Behin, Esperanza Yuntarekin egindako erakustaldietako batean ere saldu zuen bat.

Bere familian margoketan aritu den bakarra izan da, orain bilobei transmititzen dien zaletasun hori. Eta 20 urteren ondoren gorde duen margolan bildumarekin zer egin ez dakiela, ongintzazko ekintzetarako koadroak ematea pentsatu du. “Horrenbeste urtek koadro askotarako ematen baitute”. Horregatik azkeneko urteetan paperaren gainean margotu du, “paperak azken finean, ez duelako leku askorik behar”.

Orain dela bi-hiru urte utzi zion margotzeari unibertsitatean Historia ikasten hasi zelako, eta ez zeukalako denborarik “denarekin jarraitzeko”.

Etxean noizbehinka hartzen ditu pintzelak bere bilobekin margotzeko. Eta horretan jada aritzen ez den arren, oraindik margoak erosteko bihozkadak sentitzen ditu artisau azoka baten aurretik igarotzen denean.

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

ARRAUTZ BETEAK

Blas de Otero kaleko 1. zenbakiaren ondoan dagoen Brest taberna-kafetegira joan gara oraingo honetan. Egunero eskaintzen dituzten pintxo errakargarrien berri eman digute Marian sukaldariak eta Miguel eta Andoni tabernariek.

Zailtasun maila: txikia

Egiteko denbora: 30 minutu

Prezioa: 1,50€

Berezitasuna: gosea asetzeko balio duen pintxoa da

Kontu batzuk

Ospetsuak dira Brest kafetegiko arrautz beteak. Izan ere, "denbora asko daramate gurekin", dio Miguel tabernako jabeak. Guztira, 40 urte daramate Bresten arrautz beteak pintxo gisa eskaintzen. "Gosea asetzeko balio dute", barran aurki daitezkeen gainerako pintxoek bezalaxe. Izan ere, eskaintza zabala da Bresten: tortillak, piper beteak, sandwichak... eta jatekoarekin batera edateko freskoa: merkatuko ardo zuri eta beltz ugari.

BREST kafetegiko Miguel

Brest kafetegia

BREST KAFETEGIA
Blas de Otero 1 - DEUSTU
94 447 95 43
Astegunetan: 07:30-itxi arte
Asteburutan eta jaiegunetan: 09:00-itxi arte

Nola egin?

Hegaluzea eta York urdaiazpikoa xehe-xehe txikitzen ditu Marian Brest kafetegiko sukaldariak aurretiaz egositako arrautzen gorringoarekin nahasteko. Ore hori erabiltzen du arrautzak betetzeko. Bete ostean arrautzeztatu eta frijitu egiten ditu. Pintxoak ez du zailtasunik Marianen esanetan, "praktika kontua baino ez da". Beraz, praktika ezazue eta on egin!

OSAGAIAK

Arrautza
Hegaluzea
Mahonesa
York urdaiazpikoa
Irina

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO → Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

IZASKUN ARALUZEA ITZA

Arte Ederretako ikaslea

JOLASTEAZ ETA SORTZEAZ

Gabonak hemen dira! Kaleetan argiak jarri dituzte, supermerkatuak turroiz beteta daude eta denda guztiak jendez gainezka. Laster helduko dira gabonetan urtero errepikatzen dituzten pelikulak telebistara, eta aurten ere, etxeko txikiak urduri egongo dira, Mari Domingik eta Olentzerok zer ekarriko zain.

Hasi dira bada hainbat jostailu dendatako liburuxkak banatzen kaleetan. Pasaden hilabetean, ikastolako atean ari ziren horrelakoak ematen. Ume guztiek nahi zuten bat, jostailuak aukeratzeko. Jostailu berriena nahiko dute gehienek, telebistako iragarki batean ikusi dutena akaso. Agian oparitu eta astebetez egunero erabiliko dute eta alde batera utzi, edo agian betirako gordeko dute. Argi dagoena da, umeek jostailu berria izan edo ez izan, jolasten jarraituko dutela.

Jolasaren bitartez ezinezkotzat duguna posible bihur daiteke. Objektuei eta gauzei zentzu berria eman diezaiekegu jolasten. Agian honek zerikusia du sormenarekin, ulertzeko modu berriak bilatzearekin.

Eta pentsatzen hasi naiz, agian, denok jolastu beharko genukeela pixka bat bada ere.

NAHIA LOPEZ DE MUNGIA AGIRRE

Elorri bertso-eskolako kidea

EA BETETZEN ZAIZUN

Askotan gustatzen zait
zure poztasuna
zu beti izan zara
betiko laguna
asko espero dut nik
nire txapelduna
ea betetzen zaizun
amesten duzuna.

Gabonak heldu dira
bagaude hizketan
turroi gozoa janez
asko jolastean
hemengo kaleetan
eta etxeetan
ondo pasa ezazu
opor egunetan.

EUSKO LABEL

Goi-mailako elikagaiak
Alimentos de calidad superior

gurearen zaporea

Eusko Labelek marka ziurtatuko: kalitate goreneko eta zapore bikaineko produktuak eskaintzen dizkizu.

gure baserritarrek eta arrantzaleek gure lurraldeko onena ateratzen dute zuretzat. euskadin ekoitzitako, eraldatutako eta/edo landutako nekazaritzako elikagaien produktuak. euskolabel erosita kalitate gorenekoa eskuratzeaz gain, gure ekonomia, gure lehen sektorea, gure paisaia eta gure kultura iraunarazten ere laguntzen duzu. gureak ematen duen gozamena.

hazi
LANDA, ITSASERTZ ETA ELIKAGAIEN SUSTAPENA
DESARROLLO RURAL, LITORAL Y ALIMENTARIO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

EUSKARAZ ERE, NATURALTASUNEZ

Harremanetan euskara naturaltasunez erabiltzea funtsezkoa da zerbitzu ona eman ahal izateko. Euskadiko Kutxan, zurekin euskaraz aritzea ez da aparteko aukera bat, gure nortasunaren eta gure izaeraren berezko ondorioa baizik. Izan ere, geurea zaintzea gustatzen zaigu, geure ezaugarri bereizgarriei eustea eta iraunarazten laguntzea, etorkizuna bermatzeko. Izan ere bada euskara bizitzeko beste modu bat... naturaltasunez.

LABORAL kutxa